Gogoratu du gutxienez azken bi urteetan 2015 eta 2016an tasa eta zerga guztiak izoztu zirela, ez ordea zuzeneko zein zeharkako zenbait gastu.

Emaitza metatu defizitarioak orekatzen joateko udal gobernuaren proposamena da:

uretan %1eko igoera, zaborretan % 8ko igoera, eta kirol patronatuko tasetan ikastaroetan %1eko igoera eta kuotetan %1,42ko igoera aplikatzea da, haur eta gazteen 3 eta 21 urte bitartean daudenak banakako kuotak ordea izoztea proposatu dute.

Udaleku eta ludotekaren zerbitzuetan ere igoera proposatzen dute bi zerbitzu hauen defizit portzentaia oso altua baita, udalekuaren defizita %71,81ekoa eta ludotekaren defizita % 87,53koa izan da 2015ean.

Bi kasuetako tasak inguruko beste herrialde batzuekin ere konparatu dituzte eta Zumaiaren kasuan tasak oso baxuak dira.

Ematen den zerbitzua oso ongi baloratua dago eta hala izatea jarraitzea gustatuko litzaieke, horregatik udalekuetan hilabeteko kuota 5,40 eurotan eta ludotekako urteko kuota 7 €tan igotzea proposatzen dute, azken kuota hau hilean 0,70 zentimo besterik ez da.

Urteroko kuota hizkuntza errefortzuko haurrentzat zerokoa izaten jarraituko du eta gainontzeko kuotak proportzio berdinean handituko dira.

Berrikuntza bezala ahalmen ekonomikoaren printzipioaren arabera diru sarrerak bermatzeko errentaren edo gizarte larrialdietako laguntzen onuradunen bizikidetzaren unitateko seme alabek ez dituzte kirol patronatu, ludoteka, eta udalekuko tasak ordainduko, hau da, dohaineko zerbitzua izango dute.

Gizarte zerbitzuetan aldaketa nabarmenena etxez-etxeke laguntza zerbitzurako prezioetan dago. Gizarte zerbitzuetako teknikariak azaldu bezala momentuko egoerarekin oso kezkatuak daude Zumaiaren, etxez etxeke laguntzaren prezioa handia da, lan egunetan 21,29 euro orduko eta jai egunetan 22,87 euro orduko. Prezio honek zerbitzuan onuradun kopurua eta herritarrak zerbitzu honekiko dituen itxaropenak baldintzatzen ditu.

Egoera hau urteetan aipatu izan dela udal mailan zioen, herritar asko gerturatu izan dela zerbitzuaren berri izatera eta prozedurarekin hasi arren, ordaindu beharreko prezioa esaterakoan zerbitzua ez duela nahi adierazi dute.



Zumaia Udala

2016IAKU0005-004-006

Beste kasu batzuetan teknikoki baloratu izan da behar beharrezkoa zuela herritarrak etxez-etxeko zerbitzua jasotzea baina ordaindu beharreko prezioa esaterakoan zerbitzua deuseztatu du.

Zerbitzu honen onuradunak anitzak izan daitezke adibidez, pertsonen ezaugarriak direla eta laguntza behar eta familiarik ez edo laguntza falta izatea, bakardade eta isolamendu arrisku egoeran izatea, autonomia murrizten joan da laguntza eza duten pertsonak, egunerokotasunerako etxeko pertsonaleko ekintzetarako eta etxeko jardueretarako laguntza beharra duten pertsonak besteak beste.

Urtez urte etxeko laguntzako onuradunen kopurua mantenu edo beheraka doa eta horren arrazoï nagusia zerbitzuak duen prezioa da.

Herritarrak dituen beharrei irtenbide bat ematen dio eta tamalez sarritan irtenbidea kontratazio irregularrak izaten dira eta guzti hau udalak eskaintzen dituen prezio altuengatik.

Udaletik nolabait egoera honekin ezkutuko ekonomia irregularra bultzatzen ari da. Guzti hau ikusirik, eta gaiaren garrantziagatik eta herritarrengan duen eragin zuzenagatik udal gobernuak etxez-etxeko laguntzaren prezioak jaisteko erabakia hartu du. Lan egunetako prezioak %17,80an eta jai egunetakoak %19,10ean murriztuz. Prezio berriei onuradunek gehienez 17,50 euro orduko lan egunetan eta 18,50 euro orduko jai egunetan ordainduko dituzte.

Izan diren beste aldaketa batzuek ondasun higiezin gainerako zergan IBI-an. Dakizuen bezala Gipuzkoako Foru Aldundiak hiritar higiezin erroldan berrikuspen katastralak burutu ditu. Zumaiaren kasuan balore katastralak totalen batz besteko % 4,13ko murrizketa izan dute. Urbanoetan baloreak batz beste % 70 jaitsi dira eta industrialetan baloreak batz beste % 20,33 jaitsi dira.

Kasu honetan hiru alderdiak adostua, tipoak igotzeko erabakia hartu dugu. Ondasun higiezin gainerako zergagatik udalak jasotzen dituen sarrerak parekoak izan daitezken. Hirian aplikatzen diren tipoak egokitu dira, urbanoan tipoa 0,21210tik 0,21294ra % 0,4 a igoko da gutxi gorabehera eta industrialetan tipoa 0,46980tik 0,53930ra pasako da.

Hobari guztiak berdin mantentzen dira.

Ekonomia jardueren gainerako zerga berdin mantentzen da.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergan, zerga honetan ibilgailu historiko, kentzen da % 100 hobaria ibilgailu historikoetarako eta fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez 25 urteko antzinatasuna duten ibilgailuetarako.

Berrikuntza bezala gutxi kutsatzen duten ibilgailuen hobaria izango duten zergaren kuotan, alde batetik % 75eko hobaria izango dute lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita bi ekitaldietan zehar trafikoko zuzendaritza orokorraren erregistroan honela sailkatuta dauden ibilgailuek:

Bateria duen ibilgailu elektrikoak autonomia he autonomia hedatutako ibilgailu elektrikoak; ibilgailu elektriko hibrido entxufagarriak, gutxienez 40 kilometroko autonomia dutenak; edo erregai-piladun ibilgailuak.

Bestetik % 40ko hobaria izango dute lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita bi ekitalditan zehar, Trafikoko Zuzendaritza Orokorraren erregistroan honela sailkatuta dauden ibilgailuek: ibilgailu hibrido entxufagarriak, 40 kilometroko



Zumaia Udala

2016IAKU0005-004-006

autonomia baino gutxiago dutenak; ibilgailu hibrido ez entxufagarriak gas naturalarekin edo petrolio-gas likidotuarekin bultzatutako ibilgailuak.

ICIO berdin mantentzen da.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak, hemen aldaketa ondorengo tasetan proposatzen dute. Gainontzeko beste tasa guztiak berdin mantentzeko dira:

Kirol patronatuko tasak berrikuntza bezala Aitzuri pilotalekuko alokairuen tasak jarri dira.

Gizarte zentroan podologo zerbitzuan bi zerbitzuetan igoerak izango dira: Kiropodian euro bat eta Ezinduentzako etxeko zerbitzua 0,50 zmetako.

Ile-apaindegian zerbitzu guztiak 0,50ko igoera izango dute.

Tabernan prezio guztiak izoztuko dira.

Ezkontzetarako, San Telmo ermitaren erabilpena arautu gabe zegoen eta gainontzeko eraikinetan ezkontzeagatik aplikatzen den prezio berdina ipini da. Ezkontzak San Telmon 49,15 euroko kostua izango dute.

Bidaiaren garraio zerbitzuan:

Txu-txu trena eta beste edozein garraio bide arautu dira euro bat joan etorria.

Berdintasun arloan hemen tailer guztiak berdin zero eurotan egoten jarraituko dute.

Filmaketagatiko tasan, hau berria da, jakina da Zumaian azken urte honetan, pelikula bat baino gehiago grabatuak izan direla, 8 apellidos vasco, Zipi-Zape, Harria, Goenkale eta jarduera arautu eta ekoiztetxek dagozkien tasak ordaindu ditzaten sartu dugu aurtengo ordenantzetan tasa berri hau 300 € eguneko eta kokalekuko irabazpidezko helburua dutenean eta 150 € eguneko eta kokalekuko irabazpidezko helburua ez dutenean eta euskaraz direnean.

Amaitzeko trakzio mekanikozko ibilgailuak bide publikoetan aparkatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzeko ordenantza gehitu da

Trakzio mekanikozko ibilgailuak bide publikoetan aparkatzeagatik ordaindu beharreko tasak honela dio:

Trakzio mekanikodun ibilgailuek Zumaia udalerrian ibilgailuak aparkatzeari buruzko araudi erregulatuak zehazten duenaren arabera, udal bide publikoetan zehaztutako alderdietan aparkatzen direnean sortzen den udalaren herri jabetzaren aprobetxamendu berezia da, tasa honen ongizate zergagarria.

Aparkatzeko bereizgarria edo baimena lortu eta, kasu bakoitzean, dagokion baldintzetan aparkatu ahal izateko, Zumaia udalerrian ibilgailuak aparkatzeari buruzko araudi erregulatuaren arabera, honako zerga kuota ezarri dira:

Egoiliarrentzako txartela 1.txartela15€



Zumaiako Udala

2016IAKU0005-004-006

2.txartela25€

Jarduera ekonomikoen titularren txartela 1.txartela15€

2.txartela30€

Jarduera ekonomikoen atxikitutako ibilgailuentzako txartelak. Lehenengo txartela eta hurrengoak.....30€

Txartela mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuetan..... 0 €

Txartela bigarren bizitokiko (bizileku bakoitzeko) 1.txartela15€

2.txartela25€

Eta hauek dira azkenean, laburbilduz ordenantzak jasotzen dituen berrikuntzak eta aldaketak.

Joseba Azpiazuk (EH BILDU) ondorengo testua irakurri du 2017ko ordenantza fiskalen inguruan:

2017RAKO ORDENANTZA FISKALAK

Orokorrean ados gaude zerga eta tasak izoztearekin. Oraindik ere aspalditik datorren krisi ekonomiko batean gaude, eta nahiz eta esaten duten hasi garela errekuaratu, ez da inondik inora hori ikusten. Horregatik, ez zaigu iruditzen herritarrek, murrizketak besterik ez dituztenak jasan azken urteetan, beste gaikarga bat sufritu behar dutenik zerga eta tasen igoeren bitartez, eta ondo ikusten dugu 2017rako tasak eta zergak izoztea.

Baina aurten, udal gobernuak, aurreko urtean ez bezala, tasa batzuk igotzea proposatu du. Hain zuzen ere, honako tasa hauek dira igoera izango dutenak:

- Zaborra jasotzeko zerbitzua: %8ko igoera. Etxebizitza normal batean 9,44 €ko igoera.
- Ur-hornidura: %1eko igoera.
- Kirol patronatuko zerbitzua: %1eko igoera ikastaroetan eta %1,42ko igoera bazkideen kuotetan.
- Ludoteka zerbitzua: %17ko igoera. Egia da nahiz eta igoera handia den portzentualki, kopuru absolutuetan 7€ko igoera suposatzen duela urtean; hau da, hilean 58 xentimo besterik ez.
- Udaleku zerbitzua: %6,5eko igoera.

Aurrena esan beharra dago zerbitzu horietan, une honetan, egia dela defizita dagoela, baina gure ustez, udalak gai izan behar du defizit horren zati bat behintzat asumitzeko. Gainera ia zerbitzu gehienak dira defizitarioak, baina ezin dugu urtez urte igoerak onartu defizita estali arte, zeren bestela igoera handiak egin beharko genituzke baita ere, adibidez, musika heziketan edo kultura ikastaroetan.

Dena dela, udal gobernuaren proposamenaren aurrean, EH Bilduren planteamendua honakoa izan da. Batez ere zaborraren tasari begira izan da gure planteamendua:

- Zaborra jasotzeko zerbitzuaren tasaren igoeraren aurrean uste dugu errauskailua dagoela kostu igoeraren atzean, eta gure planteamendua izan da birzikaltzen duten herritarrek saritzea. Hau da, gauzak ondo egiten dituztenak ezin dute gaizki egiten dituztenak bezainbeste ordaindu. Udalean badaude datuak zenbat herritarrek duten edukiontzi



Zumaia Udala

2016IAKU0005-004-006

marroiairen giltza jakitzeko, eta uste dugu sarituak izan beharko liratekeela herritar hauek. Denak ondo ez dutela egiten? Agian, hala izango da une honetan ez dagoelako hori kontrolatzerik, baina argi dagoena da giltza ez duenak ez duela birziklatzen, eta ez duela asmorik ere birziklatzeko. Denok birziklatuko bagenu ez litzateke beharrezkoa izango errauskailua, eta kostuak ez lirateke horrenbeste igoko, eta horren ondorioz, tasak ere ez. Udal gobernuak ez du onartu gure proposamena, nahiz eta esan digun beraiek ere ildo horretatik doazela, eta agian hurrengo urteetan posible izango dela.

- Kirol patronatuko zerbitzuaren aurrean proposatzen den igoeraren aurrean, proposatu dugu igoera hori ez aplikatzea 21 urteko azpikoei, eta udal gobernuak onartu egin du.
- Udaleku zerbitzurako igoera ere kontuan hartzekoa da, zeren zerbitzu hau, uztailen, guraso askok erabiltzen duten zerbitzua da, eta oso baliagarria da lan eta familia bizitza uztartzeko. Guk proposatu dugu urte gehiagotan banatzea igoera.
- Proposatzen diren beste igoerak iruditzen zaigu onargarriak direla.

Beraz, EH Bilduk egindako proposamenetatik udal gobernuak onartu duen bakarra izan da kirol patronatuko tasen igoera 21 urte azpikoei ez aplikatzea.

Bestalde, ados azaldu gara udal gobernuak egin dituen honako bi aldaketekin:

- DBE (diru sarrerak bermatzeko errenta) edo GLL (gizarte larrialdietarako laguntzak) kobratzen dituzten familien umeei, tasarik ez kobratzea kirol patronatuan, ludotekan eta udalekuetan.
- Etxez etxeko laguntzaren tasa maximoa jaitea, gizarte teknikariak egindako eskaerari erantzunez. Horrela, batetik, onuradunak merkeago ordainduko du zerbitzua, eta bestetik, enplegu sustapenari bultzadatxo bat emango zaio.

Bukatzeko, aurreko urtean esan genuen bezala (2016ko ordenantza fiskalak eztabaidatu zirenean), azken 8 urtetan egindako ia aldaketa guztiak mantentzen dira, eta iruditzen zaigu ordenantza hauek oso egokiak direla ezker ikuspuntutik. Baina, baita ere, iaz esan genuen bezala, ondasun higiezinaren gaineko zergan, orain dela 2 urte, ezarrita zegoen errenergua berreskuratu beharko litzateke. EH Bildu koherentea da errenergua honen ezarpenarekin berak gobernatzen duen tokietan baina EAJ ez da batere koherentea, herri batzuetan jartzen du (adibidez, Zarautzen %100 errenergua dago, hau da, Zumaian zegoena baino handiago) eta beste batzuetan, Zumaian bezala kendu egiten du.

Hain zuzen ere, errenergua hau ez berreskuratu nahi izatea eta zaborraren tasan ez bereiztea ongi eta gaizki birziklatzen dutenak, eragin handia daukate gure bozkaren zentzuan eta ondorioz, EZEZKOA emango dugu.

ZUMAIKO EH BILDU UDAL TALDEA

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) adierazi du oso gustura geratu dela eztabaida irekia izan baita hiru udal-alderdien aldetik, baina zaborren igoeraren aldetik esan du EH BILDUK 2012an zaborrak %20 igo zituela eta errauskailua oraindik ez zegoela. Gehitu du, kontenedore marroien bilketa inguruan 2012tik 2013ra egin zela birziklapen tonak ia-ia bikoiztu egin zirela. Horregatik, ondorioztatu du 2013, 2014 eta 2015 urteetan EH BILDUK hobariak aplikatzeko aukera izan duenean ez duela ezer egin zentzu horretan. Jarraitu du zehazten, Udalekuetan % 7ko igoera bi urteetan banatzeko e.a.7 euro dira urtean, hilen 0,70 zentimoko igoera da bai; defizita oso altua da bai udaleku eta bai ludotekan, ez dela urtero igo behar, baina oreka bat bilatu beharra dagoela bai. Ludoteka kasuan, adibidez, behar ezberdinak ere izaten dira batzuetan eta behar horiei erantzun ahal izateko ezin dute defizita metatzen joan, iruditzen zaio beste ekintza



Zumaiako Udala

2016IAKU0005-004-006

batzuek nahi badira aurrera eraman adibidez, etxez-etxeko laguntza zerbitzuan, bi urtetan banatzea; EH BILDUK ere horrelako igoera bat aplikatu izan duela 7 euroko igoera eta urte batean aplikatu zuela baita ere, orduan galdetu du gauza bera batzuentzako ondo ote dagoen eta beste batzuentzako, berriz, ez. Bestetik, % 75eko errekaruaren gainean beti eztabaida berdinarekin dabilzala eta EH BILDUK esan duenean Zarautzen % 100eko errekarua dagoela, baina azpimarratu du Zarautzen % 75ean jaitsi zuela EAJ-PNV sartu zenean gobernuan eta Zumaian beraien ere portzentaia berdinean murriztu dutela errekaru hori % 75ean, hain zuzen ere. Zarautz Zarautz da eta Zumaia Zumaia, baina bienta kasualitatea portzentaian berdina murriztu dela, azkenean bigarren etxebizitzan inbertsioa burutu duenari ez zaie iruditzen zigortu behar denik, bakoitzak bere aurrezkiak edo delakoak nahi duen bezala erabiltzea dauzkala; EH BILDUREN lema edo politika dela, gehien daukanak gehiago ordain dezala, baina bere ustez bigarren etxebizitza edukitzea ez da gehiago edukitzea - badaukazu diru hori inbertitu gabe bankuan izatea adibidez, eta hor herritarra ez al den zigortzen zigortu behar galdetu du; diru hori erabiltzen bada, bigarren etxebizitza bat erosteko, orduan Zigortu egiten da; herritarrak bere dirua erabiltzen badu bidaiatzeko ez da zigortzen baina herritarrak aurrezki bere filosofia aurrezte baldin bada eta berak erabakitzen badu inbertsio bat egitea eta gainera inbertsio horretan zaborrak erabili gabe ordaindu egiten ditu, minimo batzuek ordaintzen ditu, herrian, udaletxean sarrera batzuek, o sea, bere sarrerak bikoiztu egiten ditu eta zigortu behar al den geldetu du berriro. Bukatzeko esan du berak ez duela horrela ikusten eta konparaketa eginez bi pertsonen artean, biak diru berdinarekin, galdetu du berriro ea batek etxebizitza bat erosten badu udalak zigortu egin behar zaion, besteak, berriz, diru hori erabakitzen badu ez inbertitzea, bankuan badauka dirua eta udalak ez duen zigortu behar.

Xabier Garmendiak (EAJ-PNV) zehaztu du EH BILDUK aipatu duela giltzik ez daukanak ez duela birziklatzen, bere iritziz jende asko dago konposta egiten duena eta konposta egiten baldin badu giltzaren beharrik ez daukana, kontenedore horrek ez duelako ibiltzen.

Alkateak bi interbentzioen inguruan esan du Zumaian EH BILDU zegoenean % 0,75a jarri zuela bigarren etxebizitza hutsen kostua eta Zarautzen %150 edo 175eko errekarua jarri ziola bigarren etxebizitza huts horiei. Norbait ez baldin bada izan koherentea, EH BILDU izan da. Zeren Zumaian %0,75a jarri du eta Zarautzen % 50a. Zarautzen EAJ-PNV egon denean jaitsi du, Zumaian EAJ-PNVek jaitsi duen portzentaia berdina. Jarraitu du esaten koherentziaz hitz egiten hasita ez zaio iruditzen EH BILDU inongo exenplurik emango duenik, zeren Azpeitian zezenak baimentzen dira eta Donostian EH BILDUK irabazten dituen hauteskundeak zezenak kentzen ditu, orduan koherentziaz EAJ-PNVri exenplurik ez diola emango edo Irunean San Ferminetan zezenak ospatzen dira eta EH BILDU dago baita ere; bukatu du ondorengo esatera aipatuz: "ejemplos vendo para mí no los tengo"



Arritxu Marañonek (ES-SV) hitzez hitz ondorengo adierazi du:

Señalar como grupo socialista que voy a votar, votaremos a favor de las ordenanzas fiscales para este año y fundamentalmente la razón principal es que en general son unas tasas bastante equilibradas y con un carácter social bastante marcado.

Efectivamente y lo han señalado también desde el grupo de EH Bildu continuamos inmersos en una crisis de la que no terminamos de salir, es cierto que prácticamente las tasas de este año se congelan, pero se congelan porque el IPC de este año es un IPC cero, si hubiera sido un IPC de un 1% se hubieran incrementado en general un 1%, o sea la congelación viene dada porque el IPC de este año ha sido ése.

El cará

carácter social sobre todo se aprecia fundamentalmente en un área como es la de Servicios Sociales, Bienestar Social y en concreto en una partida fundamental como es la ayuda a domicilio que no en este municipio, sino si miramos alrededor en gran número de municipios del territorio de Gipuzkoa, está generando problemas muy importantes en cuanto a la cantidad a abonar por parte de los usuarios y en este sentido creemos bastante bien la reducción para este año de lo que es la hora en cuanto a ayuda a domicilio.

Por otro lado, y también yo creo que es de destacar porque efectivamente tanto en los udalekus como ludotecas deporte, etc. Aparece un incremento que en porcentaje parece muy elevado pero que en cuanto a euros en realidad es ínfimo, es mínimo y en ese aspecto, es verdad que existiendo déficit desde el setenta y tantos por ciento, pues no cabe duda de que somos una administración pública y un ayuntamiento y que debemos mirar también por el erario público y viendo las cantidades de las que estamos hablando, pues realmente vemos bien ese incremento más si lo comparamos también con los municipios del entorno y la calidad del servicio que se está ofertando desde Zumaia y teniendo en cuenta y es lo fundamental que aquellas familias que tienen problemas económicos y aparecen así acreditados no van a verse afectados por estos incrementos ya que la tasa a pagar vá a ser cero en el cien por cien de los casos.

También destacar para ir terminando y es importante el carácter "medioambiental" en cuanto a la tasa de los vehículos de tracción mecánica y esa bonificación pues a los nuevos modelos que van apareciendo en el mercado y que tienen que ver con la movilidad eléctrica, híbrida, etc. etc. etc. son pasos que se tendrían que ir dando también en otras zonas de nuestro alrededor y hablamos también de manera positiva.

Y en cuanto a la tasa de basuras y de residuos, señalar que efectivamente es un incremento del 8% pero es que el déficit es el que es y en ese sentido el servicio se tiene que continuar dando y con los datos que se nos han aportado vamos a votar a favor, si bien es cierto y tal y como se ha señalado también y lo señalamos en la comisión que pensamos y va ligado también a las políticas medioambientales que deben de ser primadas aquellas personas que trabajan en el sentido de generar menos residuo y también de reciclar en la medida de lo posible.

Se ha estado comentando para estudiar a lo largo de este año ver cual es el mecanismo para detectar realmente que personas están haciendo uso de la llave y modificar si fuera necesario el sistema de acceso al quinto contenedor y en ese sentido creemos en la palabra dada y veremos a lo largo de este año y sin más y no sé si me dejó algo por aquí, pero esos son los datos generales por mi parte.

Alkateak zehaztu du bere iritzian EH BILDUren kontrako bozka goitik datorkion erabakia dela, zerikusirik ez duena batzordeetan landutakoarekin, hain zuzen ere.



Zumaiako Udala

2016IAKU0005-004-006

Alex Olidenek (EH BILDU) argitu du, batetik, lan giroa egon dela eta lan polita egin dutela elkarrekin; gustura daudela horrekin eta hala jarraitu nahi luketela aurrekontuetan eta gainontzeko batzordeetan; bestetik, ez du onartu Alkateak esandakoa, inposatutako erabakiarena, alegia, lehenengo momentutik fokalizatu baitzuten desadostasuna zaborretan (errauskailua egoteak ez ziela uzten baiezkoa ematen); zehaztu du errekarquaren inguruan joandako urtean errekarqua kendu izana, egia da, 175etik 100era, 75eko tartea dagoela; 75etik 0ra 75eko tartea dagoela batean da %43a jaitsiera eta bestea da %100a; bata da jaitsi bestea da kendu. Joan den urtean errekarqua zela eta abstentzioa eman zutela ez zutelako ikusten aproposa erabaki hori, beraien iritzia erresponsableak izan behar dugula eta oreka finantzeroa bilatu behar dugula eta errekarqua hori juxtua iruditzen zaie, hain zuzen, udalak bere eskumenak dauzkala, udalak ez daukala eskumenik zerga errentaren gainean edo patrimonioaren gainean ezartzeko, udalak daukala eskumena daukan lekuan, beste instituzio bati dagokio seguruena progresibitate hori eta justizia sozial eta fiskal hori egiterako orduan beste instituzio bati dagokio horiek ezartzea, baina udalari dagokion neurrian eta gehien duenak gehien ordaindu behar duela, elkartasun soziala helburu. Xabierri erantzunez esan du konpostatzen duenak edukiko duela bere hobaria konpostatzeagatik, baina ez duelaesan nahi giltza ez duenak eta konpostatzen duenak, konpostatzen du eta hor birziklatzen du nola edo hala, baina... baita ere giltza edukitzeak eduki behar du bere hobaria beraien iritziz eta konforme leudeke baita ere zabor tasak eta igotzen baita ere, erantzukizun horretan udalak oreka finantzeroa eduki dezan baina hemen portaera sozial egokiak saritu beharko lirarteke.

Alkateak berretsi egin du EH BILDUren erabakia inposatua dela, bi arrazoi eman ditu: batetik, kontraesana ikusi du hiru urteetan gobernuan egon denean ez duelako hobaririk aplikatu eta orain berriz, ez delako jasotzen 7,4 hobaria kontra bozkatzea; bestetik, errekarqua kentzearen inguruan, iaz abstenitu eta aurten berriz kontra egitea zentzugabea ikusi du.

Joseba Azpiatzuk (EH BILDU) ukatu egin du erabakia goikoek ezarri dietela, eurek erabakitzen dutela zer bozkatuko duten eta gogoratu du EH BILDU gobernuan zegoenean EAJ-PNVek kontra bozkatu zuela eta, ondorioztatu du hortaz, goitik aginduko ziotela zer bozkatu.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 6 boto (EH BILDU)



Zumaia Udala

2016IAKU0005-004-006

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

- 1.- Hasierako onarpena ematea 2017.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberako, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogoita hamar egunetan zehar.
- 2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.
3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

PROPOSAMENA.-

EH-BILDUK AURKEZTURIKOA: "GAME OF THRONES" TELESAILERAKO HITZARMENAREN EDUKIAREN BERRI EMATEA

Alex Olidenek (EH BILDU) adierazi du ikusita udan ekipamendu publikoak erabiltzen zirela eta hor hitzarmen bat edo bat kontraturen bat egon behar zuela tartean, ikusita egindako batzordeetan eta abuztua tarteko ez dela modurik egon hori gauzatzeko, hori dela-eta irailaren hasieran eskatu zuten hitzarmenaren berri ematea, eta baita ere ea berdintasun planean azaltzen den bezala –udalak onartutako ekimena, hain zuzen ere, eta betebeharra, hortaz- ea berdintasun klausulak sartu diren. Zehaztu du, nolanchi ere, orain hitzarmena eskuratu dutela eta berdintasun klausularik ez daudela. Hilaren 5eko batzordean aipatu zela "Game of Thrones" produktorak egindako eskaera egun horretan bertan eta eskatu dio Alkateari helarazi diezaiela.

Alkateak esan du produktora honek bere funtzionatzeko moduak dauzkala eta beroien lana egoki aurrera eramateko nolabaiteko diskrekzioz gustatzen zaiela eramatea prozedura guztia. Bestetik, EH BILDUREN jarrera nahiko kuriosoa iruditzen zaie, izan ere hainbat grabaketa izan dira Zumaian eta artxiboan saiatu dira aurkitzen aurreko legegaldian sinatutako hitzarmenik beste ekoiztetxeekin eta ez dutela ezer aurkitu. Gogoratu du Bermeon era grabatzen ari direla –EH BILDUK gobernatzeko du- eta oposizioan dagoen EAJ-PNVko ordezkariekin hitz egin duela eta gaur dela eguna oraindik ofizialki ezer ez daukala, ez batzordetik eta ez plenotik, ez hitzarmenik eta ezer ere ez. Bermeno ere Zumaian bezala



Zumaia Udala

2016IAKU0005-004-006

egokitzapenak ari direla egiten San Juan de Gaztelugatxen eta han ere mobiliarioa ere ari dira kentzen, asientoak, barandilak, hormigoizko asientoak eta dagokion eraldaketak aurrera eramateko. Ez dute ulertzen zergatik EH Bildu hasieratik gai honen inguruan halako mesfidantza, zalaparta sortu duen eta aldiz Bermeon ez dagoen inongo arazorik, herrian onartu da eta ez da inongo zalapartarik sortu. Badirudi EH Bildu gobernuan dagoenean Zipi Zape grabatu liteke, Ocho apellidos grabatu liteke, edozein grabaketa aurrera eman liteke, herriak dena ontzat hartu behar dela, eta EAJ-PNV dagoenean, berriz, beste gardentasuna eskatzen dela, sinatutako hitzarmena publiko eginaraztea eta abar; Ekoiztetxeari egin ditu gauza batzuk inon egin ez duena "Juego de Tronos"-ek; ez dio grazi handirik egin "Juego de Tronos"-ek hitzarmen hori publiko egitea, hala behartu herrian EH Bilduk asko lagunduta sortu duen zalapartagatik, batik bat. EH BILDUK egin duen galderaren inguruan -Alondegia utzi ote zaion- Alkateak esan du aurreko legealdietan etxeko lanak ez direla egin eta ordenantza fiskaletan jasota ez dagoenez ezin izan diotela kobratu Alondegia uzteagatik. Nolanahi ere, udal gobernuak ez zuela inongo asmorik ezer kobratzeko Alondegia erabiltzeagatik, historikoki inoiz ez delako kobratu ekoiztetxeei eta ez du ulertzen zergatik EH BILDUK buru belarri dabilen telesail honi bereziki, ekoiztetxe honi, besteei eskatu ez zaiena. kobratzeko inongo asmorik ez zuela udal gobernuak eta bi aldiz utzi zaiela: bat izan da enplegu poltsa hori martxan jartzeko, Zumaiar asko daude lanean ia bertan, adineko jendea, langabetuak denbora askoan, familia duten familiak eta iruditzen zaie desproporzio bat 50 edo 40€ kobratzea "Juego de Tronos"i uzteagatik alondegia; bai kobratuko zaiela eremu publikoan okupazioa, baina gero grabaketa ez dauka udalak kobratzerik kostaseko eremua delako, eta behin ia hormatik eta beste aldera Kostasen eskumena delako baimenak ematea, kobratzeko, bera da administrazio hori da eskudun eremu hori kudeatzeko eta udalak ez dauka eskumenik ezer kobratzeko eta baimentzeko. Konturatu direla "Juego de Tronos"i konbenio hori idazterako orduan zer kobratzea zeukan udalak eta zer ez; baita ere konturatu dira aurreko udal gobernuak eremu publikoan filmaketa tasak kobratzeko eskumenik ez duela izan, ez delako jasota ordenantza fiskaletan, aurreko grabaketak egin direnean ez zaie kobratu "Ocho apellidos vascos" "Haundia" hainbat grabaketa egin direnean. EH Bilduk ez du ezer egin aspektu horretan, ez zaio ezer kobratu ekoiztetxe horiei eta aurtengo ordenantza fiskaletan hori jaso dutela ia 300 € tokiko eta eguneko, eta bonifikazio bat 150 € irabazi asmorik ez duten grabaketak edo euskaraz grabatzen diren telesailak edo filmak. Berdintasun planen inguruan kurioa edo atentzioa deitzen diela izan ere berdintasun plana EH Bilduk onartu zuen bigarrenengo berdintasun plana, bigarrenengo legealdian eta hainbat kontratu prestatu zituen, esleitu zituen eta eguneko udal gobernuko kideak berriak direla baina udaletxe honetan dauden teknikoak ez dira berriak eta hau eskabide hau sartu denean udaletxean atentzioa deitu diola udal gobernuari eta galdetu egin dietela udal teknikariei nola aplikatzen zen, eta erantzuna izan dela suposatzen dela berdintasun teknikariak begiratu behar duela eta abar; ondorioztatu du, orduan, "Juego de Tronos"i eskatzen zaiola beste inori ere eskatu ez zaiena, aurre iritzi bat baitago eta exijitzen zaio ekoiztetxe honi gainontzekoei eskatzen ez zaiena eta udal gobernuak publiko egin aurretik kostatu zitzaiola ekoiztetxeari konbentzitzea Alkateak batzordetik pasatzea eta



Zumaia Udala

2016IAKU0005-004-006

aipatzea telesail bat edo ekoiztetxe garrantzitsu batek nahi zuela Zumaian grabatu, Zumaian bolo bolo zebilelako eta ez zitzaiela iruditzen egoki oposizioari udal gobernuak ezer ere ez esatea eta baimendu zitzaiola bakarrik ekoizte etxe famoso batek grabatzea etortzekoa zela eta prentsaurrekoa eman zen; utzi bezain pronto herrian sortu zen kezkatatik hondartza itxiko zela bi hilabete, negu osoa, azkenean kalean irteten dute hainbat zurrumuru eta hori argitzeko aldera, nahi izan zuen lehenik eta lehen bai lehen publikatu eta batez ere informatu udara sasoiari ez zela inongo eragozpenik egongo hondartzara joateko, ez zela inongo aldaketarik egongo momentu horretan. Bukatu du esaten koherentzia eskatzen denean aurrena norbere buruarekin izan behar dela koherente besteei eskatu aurretik.

Alex Olidenek (EH BILDU) esan du Alkatearen interbentzioaren inguruan erdia baino gehiago izan dela kobratu, ez kobratu. Azpiegitura publikoak erabiltzen zirelako horrek akordioa eskatzen zuela edo gutxienez hitz egitea. Ez dutela beraien adierazpenetan kobratzea eskatu, eskatu duten gauza bakarra gardentasuna izan dela, beraiekiko gainera; ez dutela eskatu hitzarmena publiko egitea, baizik eta udalbatzako kideei ezagutzera ematea, ez besterik. "Juego de Tronos" ekoiztetxearen kontra ez dutela inolako adierazpenik egin, baina bai berdintasun planean ikusi zutelako momentu batean emakumeak ez zirela deitzen nahiz eta ulertu halako pelikulan eskatzen dituen perfilak bestelakoak direla eta ulertzen da; ez diotela aparteko garrantzirik eman. Seguru dago kontutan edukiko zutela figuranteak ez direnak kontratatzerakoan, baina ulertzen du udalaren eginbeharra gauza horiek zaintzea dela. Ez dutela zalapartarik sortu, izan ere hilaren 21ean prentsaurrekoa egin eta gero agiri bat plazaratu zuten eta ez dute ulertzen nondik atera den EH BILDU kontra dagoenik. EH BILDU ez dagoela kontra azpimarratu du, baina jarraitu du esaten kezkatzen dituela, hainbat herritar bezala, honek guztiak ekarri lezakeena. Hilaren 21eko adierazpen publikoan elkarlana eskatzen zuten -ulertzen dutela konfidentzialtasun beharra-. Bermeokoak "flipatzen" daude hemengo -berak ere hitz egin gu Bermeoko EH BILDUKoekin- despliege mediatikoarekin. Zalaparta herrian sortu da eta EH Bilduk ez duela sortu, herritarrak daude kezkatuta zer egiteko asmotan ote diren, baina EH Bilduri ez leporatu ez inori kobratzeko eskatu duenik, ez zalapartarik duenik ez eta hitzarmena publiko egitea eskatu duenik; EH Bilduk egin du kezka horren bidea udalbatza honetara ekarri eta baita ere era kezka da "Juego de Tronos"ekin baita ere ekarri ditzakeen ondorioak eta ekarri ditzakeen ondorioak turismoan eta turismoaren alde dago EH BILDU eta denok nahi dugula baita ere turismo sano eta egoki bat Zumaian, baina kezka dago herrian eta kezka hori transmititu egin nahi duela EH BILDUK eta turismoaren eredu hori guretzako oraindik eztabaidatzeko dagoena, publikoki eztabaidatzeko dagoena atzo hartu zen erabaki bilera irekia egitearena, bilera ireki hori ondo baloratu zutela eta ikusi zutela bide aproposa izan zitekeela jendea lasaitzeko, jendea berak herritarrak erabakitzen, eztabaidatzen, bidea eduki dezatela. Bukatzeko esan du, EH BILDUK bakarrik transmisio hori egin duela, eta errepikatu du EH BILDU ez dagoela ez "Juego de Tronos" en kontra, eta ez duela zalapartarik sortu eta ez duela kobratzerik eskatu.



Zumaiako Udala

2016IAKU0005-004-006

Alkateak adierazi du EH BILDUK agerraldi publikoa egin zuela haserrea azaltzen ekoiztetxearen izena ez zitzaielako eman. Galdetu du zergatik Bermeon ekoiztetxearen izena babestea ondo dagoen eta hemen, berriz, ez da onartzen. Bere ustez hori udal gobernuarekiko mesfidantza zabaltzea da. Gaineratu du ekoiztetxea bera dela Bermeon eta Zumaian dabilena eta harritura daudela Zumaian zergatik sortu den eta Bermeon ez.

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) esan du Zumaian udal gobernuak eman zuela kriston prentsaurrekoa eta ez da prentsaurreko hori bakarrik eman zuela; sare sozialetan ia egunero notizia dela "Game of thrones" "Game of thrones" "Game of thrones" eta Udalak hauspotu duela, eta jendea kezkatu eta arduratu egiten da. Bere ustez Bermeon zalapartarik ez da sortu agian gobernuak ez duelako prentsaurrekorik eman. Zumaiako jendea kezkatuta dagoela Zumaia jasaten ari den transformazioarekin eta lehenago edo beranduago heldu beharko diogula, baina ez dio bakarrik "game of thrones"-i egotzi; ekoiztetxe etortzen dira grabatza eta ezingo zaie ezer esan, arduratu da zein inpaktu izango duen herrian, kezka zabaltzen ari dela herrian.

Arritxu Marañonek (ES-SV) adierazi du bere ustetan... que estamos mezclando aquí dos temas diferentes en cuanto a la petición de información por lo que veo ya se ha dado y demás.

Y otra cuestión bien diferente y otro debate distinto es la preocupación del pueblo ó no preocupación sobre las consecuencias que pueda tener determinados rodajes en el municipio de Zumaia, que no tiene nada que ver con la información que se solicita, ó que se solicitaba aquí respecto a la transparencia ó no de cómo se habían llevado a cabo determinadas actuaciones.

Yo no pensaba intervenir porque me daba por satisfecha con las explicaciones y lo dejaba así sin más, pero si entramos en este debate si que lo quiero dejar claro en este caso del partido socialista y es que bueno... ciertamente en Zumaia de un tiempo a esta parte por circunstancias y casualidades de la vida ó no! se ha entrado en una dinámica en la que por el entorno ó por como es el municipio, por lo que sea, se viene rodando diferentes series, teleseries, películas y grandes producciones como ésta y efectivamente puede llegar a producir un cambio social importante desde el punto de vista de nuestro grupo, hoy por hoy, lo vemos positivo, muy positivo, acabamos de aprobar unas ordenanzas fiscales en la que la primera fase que hemos dicho los tres grupos ha sido la palabra una crisis de la que no hemos salido todavía, ésa ha sido la primera frase que hemos mencionado los tres grupos. Mientras haya un orden y una sostenibilidad este tipo de cuestiones hasta donde yo entiendo lo único que traen es riqueza, empleo y conocimiento en el exterior de un municipio como éste, lo cual si no se pasa de un determinado límite no es malo, o yo no lo veo malo en absoluto pero en todo caso yo creo que sería un debate con calma, tranquilamente para tenerlo en la comisión de turismo ó de donde sea pues para ver que queremos hacer con todo eso desde dentro del ayuntamiento, pero de verdad que creo que no tiene nada que ver con el origen de la pregunta del principio de verdad.

Alkateak Nerea Eizagirrek esandakoaren harira esan du bera kezkatuta dagoela izan ere hemen prentsaurrekoa eman zelako herritarrak lasaitzeko, baina Bermeoko Turismo zinegotziak esaten duenean prentsan "–"lo consideran



Zumaia Udala

2016IAKU0005-004-006

algo increíble y extraordinario, que la productora HBO haya elegido Bermeo para el rodaje de la séptima temporada de la serie de "Juego de Tronos" según ha explicado muy contenta, hace unos meses cuando nos decían que podía ser ya se nos pusieron los pelos de punta y al final cuando nos lo han confirmado muy contentos, al final ha indicado la edil de turismo"- Se han decantado por solo una localización pero alucinante, porque San Juan de Gaztelugatxe es algo muy similar no hay otro en el mundo igual que este lugar,..", orduan Bermeon poztu egiten dira... eta hemen berriz... udal gobernuak poztu egin dela esan du, zer ekar dezakeen eta beste hainbat udaletatik deitu egin dutela Zumaia Udalera galdezka nola egiten dugun Turismoa hala edukitzeko, zein neurri eman diren eta abar. Zumaia ispilu bilakatu dela. Ondorioztatu du kezka baino, erronka dela eta eutsi egin beha diogula; nola sustatzen den turismoa eta turismoa da diru iturri bat, komertzio txikia dago dagoen bezala. EH Bilduk ez zuela aurreko bi legealdietan kendu, murriztu, ordutegia eta abar, jarraitu egin zuela eta orain beraiek, udal gobernuak, bide horretatik jarraitu egingo dutela.

Arritxu Iribarrek (EH BILDU) esan du, batetik, onartzen duela turismoarena eta etorriko den erronka bat dela eta horri aurre egin behar zaiola dudarik gabe eta denon artean egingo dugu ez izan zalantzarik. Uste du EH Bilduk herritar multzo handi baten ordezkari direla eta herritar multzo handi batek kezkarekin euren gaitasuna jotzen baldin badu, beraiek eskubide guztia dutela eta zilegitasuna edozein informazio eskatzeko. Esan du Arritxuk Marañonek aipatu duenean "transparencia", beraiek ez dutela pentsatu inolako "tranpitxeoa" egin denik, bakarrik informazioa eskatu dutela. Atzoko bilera oso ondo, bain uste du berandu heldu zela eta aurrez lehenago egin baldin bazen gauza asko ekidingo zirela eta beste bat onartu ezina iruditzen zaiola udal gobernu honentzat deseroso den guztiaren atzean EH Bildu dagoela pentsatzea eta uste dut fantasma hori dagoela beti eta pentsatzea EH Bilduk hauspoa ematen diela egoera deserosoak sortzen direnean, ez da hori EH Bilduren eginkizuna, ez nahia eta ezta helburua.

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) esan du ez duela ulertzen Juego de Tronosek turismoan izango duen eraginaren beldurra, izan ere beraiek udalera iritsi zirenean "boom" turistikoa dagoeneko bazegoen, ez dela Juego de Tronosengatik, aurretik "ocho apellidos vascos" egon bazegoela jada, eta hortaz, zer turismo bultzatu beharko litzatekeen orain planteatzea "pasada bat" iruditu zaio – juego de tronos dator eta orain etorriko da turista-; turismoa hemen dagoela lehendik eta denok lanean daudela egoki bideratzeko; demagogia ez egiteko eskatu du.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zapiak eta berrogeita bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.



2016IAKU0005-004-006

Idazkaria